

Interes orokorreko xedapenak, **2017ko martxoaren 20tik 26ra** bitarteko aldizkarietan (BOE, EHA, ALHAO, BAO, GAO eta EBAO) argitaratuak

I.- SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK:

II.-XEDAPEN ARAUTZAILEAK:

2017/03/23

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Ondarearen gaineko Zerga.-** Martxoaren 21eko HFP/255/2017 Agindua. Horren arabera onartzen dira 2016ko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena egiteko ereduak, zehazten dira horiek aurkezteko lekua, modua eta epeak, ezartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko aitortpenaren zirriborroa lortzeko, aldatzeko, berresteko eta aurkezteko prozedurak, zehazten dira baldintza orokorrak eta bi zergak baliabide telematikoen edo telefonoaren bidez aurkezteko prozedurak eta aldatzen da azaroaren 22ko HAP/2194/2013 Agindua, zeinaren bitartez arautzen diren autolikidazio jakin batzuk, informazio aitortpenak, errolda aitortpenak, itzulketen jakinarazpenak eta eskaerak, zergaren alorrekoak. [3080 xedapena – 64 or.](#)

2017/03/24

- **GORTE NAGUSIAK. Salgaiak manipulatzeko portuetako zerbitzua.-** 2017ko martxoaren 16ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez agintzen den otsailaren 24ko 4/2017 Errege Dekretu-Legea, salgaien manipulaziorako portuetako zerbitzua ematen duten langileen erregimen aldatzen duena, Akordioaren argitalpena indargabetzeko, C-576/13 gaiari dagokion 2014ko abenduaren 11ko Europar Batasuneko Justizia Epaimahaiaren Epaia beteaz (2009/4052 arau hauste prozedura).

[3124 xedapena – 1 or.](#)

- **ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.-** Martxoaren 10eko 231/2017 Errege Dekretua, zeinaren bitartez arautzen den kontingentzia profesionalei dagozkien kotizazioak murrizteko sistema bat ezartzea laneko ezbeharren tasa nabarmen murriztu duten enpresei.

[3125 xedapena – 15 or.](#)

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOA. Zergak. Kudeaketa informatizatua.-** 2017ko martxoaren 13ko ebazpena, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartean onartzen den Fakturazio Erregistroen Hornidura Elektronikoko Prozeduran hirugarrenen ordezkartza ziurtatzeko agiri normalizatua, Zerga Agentziaren Egoitza Elektronikoen bitartez.

[Disposición 3158 – 3 Págs.](#)

2017/03/24

- **FORU ARAUAK.-** Martxoaren 15eko 3/2017 Foru Araua, otsailaren 28ko 2/2017 Premiazko Zerga Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga aldatzen duena lurzoru klausula deritzenei dagokienez. [1056 xedapena – 1 or.](#)

2017/03/24

- **Ogasun eta Finantza Saila.-** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 543/2017 FORU AGINDUA, martxoaren 17koa, zeinaren bidez, ondarearen gaineko Zergaren 2016ko zergaldiko autolikidaziorako 714 eredu onesten den, bai eta eredu horren aurkezpen telematika egiteko prozedura ere. [3. or. eta hurrengoak](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: informacion.juridica@mutualia.es



**MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO**